

## **MOTZAILA BATEN ZORRA**

### *Ereñoko Gabika auzoko Maripa Ispizuak kontatuta*

Behin motzaile (ijito) bat aitortzera joan zen. Gezur eta abar bere barru zikina agertu zuen. Bitartean abadeari zortzi ogerleko polito-polito ostu zion. Bera, motzailea zenez, herririk herri ibiliz bizi zela esan ziotenean, abadeak berari

- Ezer ostu duzu? –itaundu zion.
- Bai jauna, zortzi ogerleko.
- Bada jabeari eman behar dizkiozu, ostean zerurik ez dago.
- Gura du berorrek hartu nire zor hori?
- Nik ez. Jabeari emaiozu.
- Eta jabeak gura ez badu?
- Orduan zeuretzat gorde ezazu.

Esker handiak emanda alde egin zuen handik motzaileak.

### **Resurrección María de Azkue**

Euskalerraren Jakintza

Literatura Popular del País Vasco

II. Liburua: Ipuinak eta Irakurgaiak

Euskaltzaindia&Espasa-Calpe

Bilbo, 1989